



Aurreko orrialdeko informazioa kontuan izanik, jarri titulua beheko albiste laburrei. Gogoan izan tituluei eta azpituluei ez zaiela punturik jarri behar amaieran.

- Hautatu titulu egokiena.
 - ☐ *Unibertsitatean sartzeko probak*
 - ☐ *Txilen 700 ikaslelik gora atxilotu dituzte manifestazioetan*
 - ☐ *600.000 ikasle atera ziren kalera.*

SANTIAGO ■ 730 manifestari atxilotu zituzten atzo Txileko hiriburuan doako garraioa eta unibertsitatean sartzeko probak eskatzen ari ziren ikasleen artean. 600.000 ikasle inguru atera ziren kalera eta polizia-indarrekin izandako borroketan 28 lagun zauritu ziren.

- ☐ *Munduko artista guztientzako erakustokia ipini dute sarean*
- ☐ *Webgune berria sortu da.*
- ☐ *Charles Saatsi publizista eta bildumagile ospetsua*

LONDRES ■ Artistek beren lanak ezagutzera emateko webgunea sortu du Charles Saatsi publizista eta bildumagile ospetsuak: www.satchigallery.com. Dagoneko 1.750 artistak ipini dituzte beren lanak sarean, eta lehen egunetan bisitari mordoak izan du webguneak. Nahi duenak sar ditzake webgunean bere lanak.

- Asmatu eta idatzi titulu egokia.

.....

.....

PARIS ■ Bigarren egunez jarraian borrokek izan dira polizien eta gazteen artean Paris inguruko auzoetan. Gazteek dozena bat inguru auto erre eta harriak jaurti zizkieten segurtasun-indarrei astearte gauean. Orotara, 13 lagun atxilotu zituzten.



Hemen beheko galderei erantzunez, idatz itzazu zure albistearen hiru titulu posible.

- Zer gertatu da?
- Zer eta non gertatu da?
- Zer, non eta noiz gertatu da?